

## Topiaria

TOKIAK SORTZEKO artea da topiaria. Tokia edo gunea adierazten duen *topos/topia* grekotik dator, “utopia”, “entropia” eta abar bezala. Landareak kimatuz itxura jakin batera eramaten dira. Landare bakar bat bezala baso oso bat izan daiteke. Paisajisten, arkitektoen, lorezainen eta edonoren imintzio edo artea da topiaria. Batzuek ikaragarritzko tokiak sortu nahi dituzte. Horren adibide ederra da Versailles sonatua, André le Nòtre (1613-1700) handiaren burutik sortua.

Egunero ikusten dugu topiariaren bat. Batez ere hesiak: haizea moteltzeko, itzala sortzeko, jabe-goa nabarmentzeko edo zerbait begiei kentzeko. Landare ugari-ekin egin ohi da topiaria: ezpela (*Buxus sempervirens*), arbustuak (*Ligustrum* sp.), japoniar basaerramua (*Evonymus japonicus*), tuiak (*Thuja* sp.), Leylandgo altzifre hibridoa (*x Cupressocyparis leilandii*), Arizonako nekosta (*Cupressus arizonica*), gorostia (*Ilex aquifolium*), pagoa (*Fagus sylvatica*), hagina (*Taxus baccata*)...

Azken hori, hagina, buelo handiko lanak egiteko erruz erabiltzen

da. Asko dira, han eta hemen, haginez egindako maisulan ikusgarriak, baina Erresuma Batuan adinako aukerarik ez dago inon. Bat ekarriko dizut, bitxia. Ingalaterran bizi da, Gloucestershire eskualdeko Cotswold-eko Bathurst Estate-n, Apsleytarraren etxean Allen Apsley du jabe eta zaindaria. Ingalaterrako hagin hesi garaiera da. 40 oineko garaiera hartua du, hamabi metrotik gora. Zabalera ere ez du nolana hiko: hamar metro. Eta 150 luze da. Urtero 6.000 eurotik gora behar du kimatze lanak ordaintzeko. Garai batean zurubi luzeekin egiten zuten muskiltze lan hori, eta gaur egun plataforma higikorrenkin. Bi langileren bi egun behar dira muskiltzea burutzeko. André le Nòtre hil zen garaian aldatutakoa da.

Hagin hesia ez da, ordea, xahupena soilik. Eman ere, ematen du. Zenbat, ez dakigu, baina asko izango da, zalantzarik gabe. Hagina pozoitsua da, baina botikak egiteko gai bereziak ere baditu.



TKX-CC BY SA



Goian, Versailles ospetsua. Behean, langileak Bathurst Estateko haginezko hesi erraldoia kimatzen.

Kimatutako adarrak txukun-txukun bildu eta horietatik sortzen da docetaxela egiteko osagaia. Botika horrekin moldatzen da birrikako, bularreko eta obarioko minbizia tratatzeko kimioterapia. ■



LUCARELLI-CC BY SA



## Limoiondoa pattal

LIMOIONDOA (*Citrus x limon*) soiltzen eta pattaltzen ari zaion batek adar batzuk ekarri dizkit, ea irtenbiderik ba ote duen galdezka. Adarretan agertzen diren apopilo zuriak kukurrutxa ildaskatuak dira, *Icerya purchasi*. *Citrus* generoko garrazki jendeari erruz erasotzen diote. Izerdia zurruputzen dute, eta haren soberakinek ematen diote distira beraiek dauden aldeari. Izerdi horri, gero, negrilla (*Fumaginas* sp.) onddo oportunistak erasoko dio, eta dena belztuko du. Izerdirik gabe eta gaina estalita, bizi ezinik, erori egingo da hostoa.

Kukurrutxa erabat kentzea ez da erraza. Alkoholez bustitako kotoi batekin igurtzi, eta handienak kenduko dituzu. Kumeak garbitzeko, ura xaboi potasikoarekin edo xaboi likido pittin batekin nahasi eta landare osoa, goi eta behe, ongi busti, blai egin. Bide batez, baita inguruko lurra ere eta, ontzi batean bizi bada, hura ere bai. Okerrenera, intsektizida sistemiko bat erabili. ■